

## **BIRKOKAPEN ARAUDIAN, AURRERAPASORIK EZ**

Uztailaren 17an Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Lan Hitzarmena sinatu zenetik, jasota geratu zen bi aldeek konpromisoa hartu genuela abenduko lehen asterako birkokatzeari buruzko akordioa lortzeko.

Hiru hilabete baino gehiago igaro dira, eta bost aste falta direnean adostutako epea amaitzeko, esan dezakegu aurrerapenik ez dagoela. Kristau Eskolak, grebaren amaierako akordioan negoziatutako eta hitzarmenean txertatutako edukiak bere gain hartu nahi ez izateaz gain, beste eduki berri batzuk ere sartu nahi ditu, birkokatze prozesua oztopatu edo langile batzuei birkokatze eskubidea kendu baino egiten ez dutenak.

Horretarako, bere proposamenen artean, lanpostu hutsak betetzeko eskatzen den titulazioa aldatu nahi du oraindik ere, enpresak bi urteko edo gehiagoko antzinasuna duten hautagaiak aurkeztuz gero, enpresari eman nahi dio lanpostu hutsa esleitzeko ahalmena, edo, are gehiago, kendu egiten die birkokatze eskubidea 0-3ko langileei, hezkuntza-laguntzako espezialistei, AZPkoei, itundu gabeko geletako langileei eta % 100etik beherako kontratu mugagabea duten langileei.

Hitzarmena sinatu zenetik, STEILASEk argi utzi du birkokatze araudia ezarritako epeetan adostu behar dela, bilerak atzeratu gabe eta irizpide objektiboak errespetatuz. Inolaz ere ez dugu onartuko irizpide berririk, ezta salbuespenik ere, patronalek Administrazioaren laguntzak eskuratu ahal izateko hurrengo birkokatze-prozesuan.

## **SIN AVANCES EN EL REGLAMENTO DE RECOLOCACIÓN**

Desde que le pasado 17 de julio se firmara el Convenio de Centros de Iniciativa Social, quedó recogido el compromiso de las partes para llegar a un acuerdo con respecto a la recolocación para la primera semana del mes de diciembre.

Han pasado más de tres meses, y cuando quedan poco más de cinco semanas para que se acabe el plazo acordado, podemos decir que los avances son nulos. Kristau Eskola no sólo sigue empeñada en no querer asumir los contenidos ya negociados en el Acuerdo fin de huelga e incluidos en el Convenio sino que, además, intenta incluir otros nuevos que no hacen sino obstaculizar el proceso de recolocación o incluso privar del derecho a recolocación de algunas trabajadoras y trabajadores.

Para ello, entre otras de sus propuestas, continúa queriendo modificar la titulación requerida para ocupar las vacantes, otorgando la adjudicación de las vacantes a la empresa en caso de que presenten candidatos de dos o más años de antigüedad o, incluso, privando del derecho a recolocación de las trabajadoras de 0-3, Especialistas de Apoyo Educativo, PAS, personal de aulas no concertadas y personal con contrato indefinido que sea inferior al 100%.

STEILAS ha dejado bien claro desde la firma del convenio la urgencia de acordar el reglamento de recolocación en los plazos marcados, sin aplazar reuniones y respetando los criterios objetivos. En ningún caso aceptaremos criterios nuevos ni excepcionalidad en el siguiente proceso de recolocación que permita a las patronales acceder a las ayudas de la Administración.

**Irakaskuntzan, STEILAS**[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.euBizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.euGipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.euNafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu